

Berrigara

Azul

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 16a / 568. zenbakia



ESKUBALOIA: IÑAKI MANUEL, ESPAINIAKO TXAPELDUN/10 • ORGANOA: EMANALDIA BIHAR SAN PEDRON /12

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO ARGAZKIA: MONIKA BELASTEGI

2003-2004 IKASTURTEKO
EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza:

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE maila guztiak.
EGA eta EGAtik gorakoa.

HIZKUNTZA ESKARIZUNetarako prestakuntza.

Egokitutako taldeak:

Guraso, merkatari, enpresa, etab.

MULTIMEDIA gela.

Erritmoak:

Eskarien arabera erritmoak. Galde ezazu!

Bulego ordutegia:

Goizez: 08:30-13:00 • Arratsaldez: 14:30-18:30.

Matrikulatzeko epea:

Urtarrilaren 19tik 30era.

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu.



neguan berotasuna beharko duzu... euskara beti!



BERGARAKO Udal Euskaltegia

www.udaleuskaltegiak.net

BERGARAKO Udal Euskaltegia • Zabalotegi 13 • 20570 BERGARA

Tel./Faxa: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

berg.euskudal@euskalnet.net



deskontuak

Mirari
JANTZIDENDA

% 50eraino

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93


ATREBENTZIA EZ PADA / Bestiei laguntzeko kanpaiñak antolatzen dienian, parte hartzen dozu?



JUANITA SEBAL
66 urte



KORO BELIO
57 urte



ROMAN RUEDA
67 urte



KARMELE REMENTERIA
39 urte



ARACELI MAYO
44 urte



IGOR QUINTANA
33 urte

Ointxe erosketak egittera noia Eroskira, eta han erosiko dot zeozer kutxara botatzeko. Beste batzutan lagundu izan dot, ahal izan doten neurrian. Ondo dare halako gauzak.

Alabek egin zittuen aurrekuan erosketak eta lagundu zebe. Neuk ondiokan ez. Dana dala, halako kanpaiñak oso ondo darella pentsatzen jat, eta inoiz lagundu izan dot.

Halako kanpaiñak oso ondo darella uste dot, eta lagundu leiken bittartian lagundu egin bihar dala uste dot. Saharako honetan ez, baiña behin lurrikara bat jansandakuei lagundu notsen.

Egixa esatiarren, sahara-rei laguntzeko kanpaiña dago oin, baiña ez dot laguntzarik emon. Ez dot ondiokan denborarik hartu. Normalian ez dot halakotan laguntzen.

Bai, parte hartu izan dot. Gaiñera, bestiei laguntzia dan dana oso ondo pentsatzen jat. Behin, Boliviako umien alde egindako kanpaiña baten hartu neban parte.

Nik normalian ez dot parte hartzen. Baiña ondo darella pentsatzen jat. Halakuak ez die Gabonetan bakarrik egin bihar. Lagundu urte guztian zihar egin biharreko gauzia da.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ANTZUOLARAKO BIDEA Noiz zabalduko dute Antzuolarako bidea? Itxita egon zen aurreko aldiaren zergatik ez zituzten hartu beharrezko neurriak berriz gauza bera gertatu ez zedin? Udalak esango digu, behintzat, noiz hasiko diren mendiari eusteko lanak eta noiz zabalduko duten? Halakoetan herritarrok informatu egin behar gaituztela uste du ohar hau bidali digun irakurleak. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 11

KULTURA / 12

Traste zaharrak

Otsailetik aurrera, etxeko traste zaharrak astero jasoko ditu Debagoieneko Mankomunitateak.

Iñaki Calvo, txapeldun

Iñaki Calvo Gipuzkoako zirklos txapelketa irabazi zuen 23 urtetik azpikoen mailan.

Organo emanaldiak

Bihar, zapatua, Organo Erromantikoaren nazioarteko V. Zikloa hasiko da San Pedro parrokan.

ASTEKODATUA

18

LAGUN SAN JOXEPEKO XAKE IKASTAROAN

San Joxepe erretiratuen elkar-teak oinarritzko xake ikastaroa abian jarri du, eta jasotako erantzuna uste baino hobea izan da: astelehenetik 18 lagun ari dira xake ikastaroan.


BESTEKEKESANA

Udalak lotsagarri jokatu du kirolgune berriaren proiektuarekin. Hasiera baten, 2002ko udazkenean

lanak hasiko zirela agindu zuen, ondoren 2003ko udaberrirako... 2004a etorri da eta oraindik ez dute ezertxo ere egin. Bien bitartean, baldintza minimo batzutan igeri egiteko, herritik kanpora joan beharra dauka, kanpoko igerileku txikia estaltzea txapuz bat izan da-eta. Debagoieneko kirol txartela ondo dago, baina inguratzen gaituzten errepideak kontuan izanda, denbora gehiago galtzen dugu errepidean kirola egiten baino. nahiko denbora pasatu da itxi zizutenetik eta ordua da kirolgune berriko lanak hasteko eta udalak gaiaren inguruko azalpen garbi bat emateko.

PEIO
www.goiena.net/03-01-08

BERAIEK DIÑO E / Iñigo Garitano



Ausartak, egoistak, errealistak

Gaur irakurri dut azkeneko zortzi urteotan etorkin legalen kopurua hirukoiztu egin dela Espainiako estatuan. Paperak ez dituzte buruz ez dut daturik ezagutzen, baina beste horrenbeste gutxienez izango dira. Euskal Herrian fenomeno hau ere ez da berria. Bi norabidetako joan etorriak izan dira gutxienez azkeneko 150 urtetan: emigrazioa, Ameriketara hainbat euskaldunek egin zutena, XX.mende 60. hamarkadako inmigratioa, estatu espainiarreko hainbat herritik, eta orain mundu zabaleko herrialde askotatik gure artera etorkizun hobe baten bila datozenena.

Nire familian gertatutakoa kontatuko dizuet: duela ehun urte baino gehiago Argentinara joandako familiarteko baten ondorengo bat orain espainiar estatura etorri behar izan da bere herrian etorkizunik ikusten ez duelako. Bataren eta bestearen

alde egiteko arrazoiak antzerakoak izan ziren eta dira. Baina harrera guztiz ezberdina izaten dihardu: hemengoak besoak zabalik hartu zituzten, osterora datozenentzako oztopoak besterik ez daude. Zergatik? Zeren beldur gara? Gure bizi maila arriskuan jarriko dutelakoan? Gure izaera eta nortasuna kutsatuko dutelakoan? Gai honetan ausartak izan behar garelakoan nago.

Baina hori asko eskatzea bada, izan gaitezen behintzat egoistak: gure herri zaharkitu honetan, belaunaldien arteko berraldaketa ematen

ez den herrian, gure gizartearen eredu ekonomikoa mantentzeko beharrezkoa dugu gure biztanlerian jende gaztea nolabait sartzea. Gizartean aldaketa ekarriko duela? Jakina. Eta? Oraingoa al da eredurik onena?

Eta azkenik, ausartak eta eskuzabalak ez izan arren, ezta egoistak ez izan arren ere, izan gaitezen gutxienez errealistak. Etorri nahi badute, lortuko dute. Harresi guztien gainetik. Ongi etorri.

“Ausartak eta eskuzabalak ez izan arren, ezta egoistak ere, izan gaitezen gutxienez errealistak”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereziar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 16**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- ZAPATUA, 17**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- DOMEKA, 18**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 19**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 20**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 21**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUENA, 22**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta
lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorenzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 11:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.
Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta
lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domekak: 10:00.
Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Santa Marina
Domekak:
11:00, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | |
| Elosu
Domekak: 10:30. | |
| Ubera
Domekak: 10:30. | |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |
| URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta
13:00etan. | |
| San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta
12:30ean. | |

OHARRAK

1956AN JAIOTAKOEN AFARIA URTARRILAREN 31N
1956an jaiotako bergararren afaria urtarrilaren 31n Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik Frontoian elkartuko dira, 19:30ean, eta taldeko argazkia aterako dute 20:15ean. Afaria musikaz lagundutakoa izango da. Izenematea urtarrilaren 25era arte Azpeitxi jatetxean, 943 76 55 00 telefono zenbakian.

IKASTAROAK KZGUNEAN
KZGuneak herritar guztientako informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

ESKI IRTEERA POL-POL ELKARTEAREKIN
Pol-Pol Mendizale Elkarteak urtarrilaren 23tik 25era Baqueiran eskiatzeko irteera antolatu du. Argibideak Pol-Poleko bulegoan, aste barruan 19:00etatik 20:30era, edo 943 76 48 51 telefono zenbakian.

LOKATZAKO ZOKZETA
Lokatza zozketan 2.473 zenbakia izan da sarituta. Irabazleak bizikleta bat jasoko du. Bigarren saria (bi lagunendako Zumelaga jatetxean afaria) 4.635 zenbakiarendako izan da.

ETXEBERRIAKO ZOKZETA
Etxeberria erlojutegiko zozketan 577 izan da saritutako zenbakia.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA
Txapligu taldekoek argazki rallya izango dute bihar, zapatua, Arrizuriagan, 16:00etan. Txiskrilabi taldekoak eskulanak egiteko elkartuko dira Udal Euskaltegian bihar, 16:00etan.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarretik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugeriza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN


Maltzaga-Urbina autobidea eztabaidatzeko taldeak lanean

Maltzaga-Urbina autobidearen proiektuaren inguruan sortutako herritarren eztabaida taldeak martxan jarri ziren 1994ko urtarrilaren 10ean. Zozketa bidez aukeratutako 350 pertsona 14 taldetan banatu zituzten, proiektuari egindako emendakinak aztertzeko.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Zastiau"



Akulua, sarda edo beste objektu zorrotz bat behin eta berriz sartu.

—Erliak majo zastiau najok besuan.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 7	0 °C
MAXIMOA Martitzena, 13	17 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	4,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 7	13 °C	0 °C	- l/m²
Eguena, 8	16 °C	3 °C	0,6 l/m²
Egubakoitza, 9	15 °C	9 °C	1,8 l/m²
Zapatua, 10	16 °C	10 °C	- l/m²
Domeka, 11	16 °C	9 °C	0,3 l/m²
Astelehena, 12	16 °C	10 °C	- l/m²
Martitzena, 13	17 °C	11 °C	2,1 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK


'PLANTA 4ª'

ZUZENDARIA: ANTONIO MERCERO. AKTO-REAK: JUAN JOSE BALLESTA.

HARIA. Batez ere telebistan egindako lanengatik ezaguna bada ere, Mercero zinean ere kritika onak jaso izan ditu. Bere azken filmean, minbizia duten gaztetxo batzuek gaixotasunari nola aurre egiten dioten erakusten digu.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak

bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

ZIRKULAZIOA/ Labegaraietan gordeko dituzte garabiak eramandako ibilgailuak, eta hartzeko 25,15 euro ordaindu beharko dira

Urtarril bukaera aldera jarriko du martxan Udalak garabi zerbitzu berria

MONIKA BELASTEGI

Garabia prest dago, eta erretiratzeko dituen ibilgailuak gordetzeko tokia ere laster egongo da gertu. Aurrerantzean argiago ibili beharko dugu aparkatzeko orduan; izan ere, isunaz gain, garabi zerbitzua ere ordaindu beharko dugu ibilgailua eramanez gero.

Urtarril bukaera aldera jarriko dute martxan garabi zerbitzua, Udaleko iturriek aurreratu dutenez. Nissan etxeko mendiko autoa erosi du horretarako Udalak, eta Udaltzaingoak izango du zerbitzuaren ardura.

Garabiak herrian barrena gaizki aparkatuta dauden ibilgailuak eramanez gero, honako egoeretan daudenak, hain justu ere: baimendutako ibietan (interesatuaren eskariz), zamalanetako gunetan, ezinduendako erreserbatutako tokitan, autobus geltokietan, taxi geltokietan, bigarren ilaran gidaririk gabe, eta espaloian; horrekin batera, zirkulazioa eragozten dutenak ere eramanez gero, eta baita lagatutako ibilgailuak ere.

IBILGAILUA GORDAILUTIK ATERATZEKO 25,15 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA

Garabiak ibilgailua kaletik kendu eta gordailura eramateagatik ordaindu beharreko prezioa 25,15 euro da. Horrez gain, noski, egindako arau hausteari dagokion isuna ordaindu beharko da. Bestalde, ibilgailuak gordailuan ematen duen egun bakoitzarengatik 6,80 euro gehiago ordaindu beharko dira.

Hilabete bukaera aldera abiaraziko dute zerbitzua, eta Udaleko iturrien esanetan, garabi zer-



Garabia dagoeneko Udaltzaingoaren garajeetan dago. Prest egoteko Udal errotulazioa besterik ez zaio falta.

MONIKA BELASTEGI

Garabiak ibilgailua eramanez gero, 25,15 euro ordaindu beharko dira berreskuratzeko

bitzua martxan jarri bezain laster, egingo dutena da herrian barrena lagata dauden ibilgailuak hartu eta kaleetatik kendu, gordailura eramateko. Horixe

Gordailua Labegaraietan egongo da, eta ez Poligonoan, hasieran esan zuten bezala

izango da garabi zerbitzu berriaren lehenengo lana eta horren ondotik ekingo diete Udaltzainek gainerakoei, hau da, gaizki aparkatutakoak zaintzeari.

Aurrerantzean kontu handiagoa izan beharko dugu autoa lagatzeko orduan

GORDAILUA LABEGARAIETAN JARRIKO DUTE

Ibilgailuendako gordailua Labegaraietan egongo da. Hasierako asmoa Poligonoan jartzea zen,

Marmoleria Bergara parean, baina Udal iturrien esanetan, Labegaraietan egokituko dute gordailua. Izan ere, marmoldegi parean tranbiaren geltokietako bat aurrekusi dute eta horrek baldintzatu egin du gordailua han jartzea.

Aurrerantzean, beraz, herri-tarrok kontu handiagoa izango dugu autoa lagatzeko orduan. Beste alde batetik, autoa bigarren ilaran lagatzeko ohitura dutenek akaso birritan pentsatuko dute garabia jartzen dutenetik aurrera.

Astero jasoko dituzte etxeko trasteak

MONIKA BELASTEGI

Debagoieneko Mankomunitateak zabaldu egingo du etxeko traste zaharrak jasotzeko zerbitzua: otsailtik aurrera astero jasoko dituzte trasteak, martitzenetan. Orain arte hilean birritan jasotzen zituzten, baina etxetik ateratzen ditugun trasteen kopuruak gora egin duenez -%22 ibar osoan, 2002tik 2003ra-, zerbitzua zabaltea erabaki dute.

Mikel Jaio Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko ardura-dunaren esanetan, Bergaran igo da batez ere traste kopurua, eta

batik bat, altzariak eta etxetresna elektrikoak batzen dituzte.

Trasteak ateratzeko orduan kontuan izan behar da 20:00etatik 22:00etara bitartean komeni dela ateratzea eta edukiontzien ondoan laga behar direla, edo zabor biletan puntuen ondoan. Horrez gain, trasteak ateratzeko asmoa izanez gero 943 71 19 38 deitzea komeni dela esan du Jaio, zerbitzua efektiboagoa izateko.

Horrez gain, dendetako kartoia jasotzeko zerbitzua ere zabalduko dute otsailtik aurrera: biletan egunero egingo dute herri osoan barrena, orain ez bezala.



Komeni da trasteak 20:00etatik 22:00etara bitartean ateratzea eta edukiontzien ondoan lagatzea.

ARTIBOIA



Dagoeneko jarri dituzte aldamiok eta babes sarea eraikinaren inguru osoan.

MONIKA BELASTEGI

Jaiak ospatuko dituzte San Anton auzoan asteburuan

MONIKA BELASTEGI

San Antonen jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Bihar, zapatua, hasi eta domekara bitartean hainbat ekitaldi egongo dira. Tartean, ohiko krosa eta mus txapelketa izango dira.

San Antonen jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Bihar, zapatua, hasi dira jaiak. 09:30ean, auzoko anaideen batzarra egongo da eta 10:00etan, San Antongo ermitaraino igoera egingo dute. 11:00etan, meza nagusia egongo da eta ondoren, hamarretakoa egingo dute hurbiltzen diren guztiek. 12:00etan, etxafuegoak eta suzko erruberak jaurtiko dituzte eta 13:00etan, berriz, txikiteoa egingo dute auzoan barrena.

Arratsaldean, Nazioarteko XVII. Mus Txapelketa jokatzeko aukera izango dute izena ematen duten guztiek. Zubiberri sagar-

dotegian izango da, 16:00etan, eta izena egunean bertan eman beharko da. Izenematea 12 euro da bikoteko, eta lau sari egongo dira. 19:00etan, txikiteoa egongo da ostera ere, eta 21:00etan, herri afaria.

DOMEKAN, KROSA

Etzi, domeka, 08:00etan jarraituko du jai giroak. Orduan joko dute diana, kanpai eta etxafuego hotsez lagunduta. 11:00etan, meza nagusia egongo da, Umore Ona taldeak abestuta eta 12:00etan, Nazioarteko 26. Krosa. Izenematea doan da, eta korrikalariek 7,5 kilometro egin beharko dituzte. Lau sari egongo dira, eta ikustera hurbiltzen direnendako hamarretakoa egongo da.

12:00etan, herri kirolak eta dantza saioa egongo dira Ikastolako Dantza taldearekin eta 13:00etan, umeendako jolasak egongo dira. Jolasokin bukatuko dira jaiak.

ONDAREA/ Hormak garbitu eta estalki berria egingo diote; baita ezinduendako sarrera ere

Epaitegia zaharberritzeko lanak hastear dira

MONIKA BELASTEGI

Laster hasiko dira epaitegia zaharberritzeko lanak. Izan ere, dagoeneko jarri dituzte aldamiok eta baita babes sarea ere epaitegiaren inguru osoan. Batik bat, zaharberritze lanak egingo dituzte, eta ezinduendako sarrera berria ere bai.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, lan eta Gizarte Gaietako Sailak egin du epaitegia egokitzeko proiektua, eta helburua da kanpoko

aldetik zaharberritzea eta ezinduendako sarrera berria egitea.

ZAHARBERRITU ETA SARRERA EGOKITU

Alde batetik, eraikinaren estalki osoa konponduko dute eta estalkiko leihoak aldatu egingo dituzte. Bestetik, euri-urendako hodiak kanpoko aldetik jarriko dituzte, jatorrian zeuden moduan. Izan ere, zaharberritze proiektuak jasotzen duenez, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan hainbat obra egin ziren epaitegian, batzuk ez oso egokiak, eta ondorioz, aldatu egin da epaitegiaren itxura

kanpoko eta barruko aldetik. Bestalde, zaharberritzearen barruan, fatxadak garbitu egingo dituzte.

Horrez gain, ezinduendako sarrera ere eraikiko dute: malda egingo dute Komenio kalean hasi eta gaur egungo sarreraraino.

Sarrera hori eta euri-urak jasotzeko sarea egin beharrik itxuraldatu egingo du Ariznoa plaza: egun dauden lorategiak kendu egingo dituzte, eta zorua lautu. Hala ere, aisialdi-gune izaten segituko du, zuhaitz eta eserlekuekin.


Lan guztien aurrekontua 281.000 euro ingurukoa da.

LABUR

Antxon Sasiain presoak gose greba hasi du, Parisetik Normandiara eraman dutelako

Antxon Sasiain gazteak gose grebari ekin zion aurreko astean, espetxez aldatu dute-eta. Parisko Osny espetxean zegoen, eta are urrunago eraman dute: Normandiako Val de Reuil kartzelara, hain justu ere. Horrez gain, kartzela horretan dagoen euskal preso bakarra da Sasiain.

Frantziako hegoaldean, Bixiers hirian, atxilotu zuten Antxon Sasiain 2001 urteko azaroan. Orduetik Osny espetxean egon da. Iazko apirilaren epaitu zuten, eta bost urteko kartzela egotzi zioten beragararrari.



Antxon Sasiain

Saharar herriaren aldeko kanpaina

E.M.

Bergarako Udalak, Komite Internazionalistak taldeak, herriko ikastetxeek eta gaztetxeak bat egin dute Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkartean deitutako kanpainarekin. Gosez hil nahi gaituzte kanpainak helburu bikoitza dauka: Aljeriako basamortuan, Tindouf-etik gertu errefuxiatuta bizi diren 200.000 saharar ingururi elikagaiak bidaltzea eta saharar herriari elkartasuna adieraztea.

Urtarrilaren 21era bitartean, oinarritzko elikagaiak jasoko

dituzte: azukrea, arroza, lekaleak, pasta, olio eta atuna oliotan. Janari bilketa udaletxean, janari dendetan eta herriko eskoletan egingo dute. Bestalde, dirulaguntza eman nahi dutenez, bi kontu korrante zabaldu dituzte, bata Kutxan (2101 0200 4400 1130 5190) eta bestea Euskadiko Kutxan (3035 0060 4506 0004 7469).

Saharak laguntza premia dela azpimarratu dute antolatzaileek, nazioarteko laguntza txikitu egin delako eta, orain dela bi hilabetez euriteen ondorioz, errefuxiatuen kanpamentuetan galera handiak izan direlako.



Urtarrilaren 21era arte janari bilketa egingo dute udaletxean, janari dendetan eta eskoletan.

HEZKUNTZA/ Nagore Iñurrategi eta Jon Anduezak 15 egun eman dituzte Aljeriako basamortuan dauden Dajla eta Ausserd kanpamendu sahararretan

Bi bergararrek hezkuntza bereziko irakasle sahararrak hezten jardun dute

MONIKA BELASTEGI

Nagore Iñurrategi eta Jon Andueza gazteek sahararren artean eman dituzte 15 egun. Egonaldiaren helburua izan da hango hezkuntza bereziko hainbat irakasleri heziketa eskolak ematea. Abenduan izan dira han, Dajla eta Ausserd kanpamenduetan.

Psikopedagogikiako bigarren mailako ikasle dira Nagore Iñurrategi eta Jon Andueza. Iaz, Aransgi zentroan egin zituzten eskolako praktikak, eta horixe izan zen, hain justu, sahararren kanpamenduetara egindako bisitaren abiapuntu. Izan ere, Aransgi Getxoko gobernuz kanpoko erakunde batekin dago harremanetan, Atfal izeneko erakundearekin, hain zuzen, eta horrek hezkuntza bereziko heziketarekin lotutako programak egiten ditu sahararrendako. Hala, Aransgi eta Atfal erakundearen arteko harremana dela-eta izan dute aukera Iñurrategi eta Anduezak sahararrek Aljeriako basamortuan dituzten kanpamenduetara joateko.

Bi kanpamendutako hezkuntza bereziko irakasleei eman dizkiete heziketa eskolak: Dajla eta Ausserd. Lehena Tindouf-etik



Nagore Iñurrategi eta Jon Andueza Nordinekin eta haren familiarekin.

130en bat kilometrora dago, eta bost egun eman zituzten han. Bigarrena 20ren bat kilometrora dago, eta 10 egunez egon ziren.

Iñurrategi eta Anduezak azaldu dutenez, bi kanpamendutako bakoitzean hezkuntza bereziko zentro bana dute, eta 70

haur inguru daude matrikulatuta. Irakasleen kasuan, 12-13 irakasle daude, eta kanpamendu bakoitzean egon diren denboran irakasle horiei eman dizkiete heziketa eskolak, batik bat, zeinuen hezkuntzan oinarrituta.

Eguneko jardunari dagokio-

nez, 08:00etan jaiki eta lehenengo gauza tea hartzen zutela azaldu dute: "Gero, gosaldut egiten genuen eta 09:15 aldera eskolara joaten ginen. 12:00ak arte eskolak ematen genituen eta bazkaldu ondoren beste bi orduz jarduten genuen eskolan, 17:00ak arte".

Bi gazteon esanetan, hezkuntza bereziko irakasle haiek badute laguntza beharra heziketa mailan: "Batziek handik kanpora ikasteko aukera izan dute, eta horiek badakite zerbait, baina askok ez dute ikasketa berezirik. Borondate on guztiarekin jarduten dute, baina umeak tratatzeko modu oso asistentziakoa dute. Gu kontrakoarekin joan ginen, hau da, umeari ez zaiola guztia egin behar, umearen autonomia garatu behar dela... Halakoekin."

Baina lankide boluntarioen figurak beste zeregin bat ere baduela esan dute: "Han egunak luze egiten dira, desertua da, eta ez dute aisialdirako ia ezer. Gu bezala kanpotik jendea joaten denean gustura asko hartzen gaituzte, batik bat, beste hizketagaitzuk daramatzagulako".

Sahararren alde hemen, herrian, dugun janari bilketa kanpaina ere aipatu dute. Azpimarratu dute benetan garrantzitsua dela guztiok kanpainen parte hartzea: "Goserik ez dute pasatzen, baina sobran ere ez daukate ezer. Kontuan izan han ezin dutela ezer erein, eta daukaten janaria beste herrialde batzuetatik ailegatzeko zaiena dela. Horrenbestez, guztiok kontzientzia hartzea komeniko litzateke".

Udalak alegazioak egin dizkio Sare Intermodal eta Logistikoaren Planari

M.B.

Hiru alegazio egin dizkio Udalak EAEko Garraioaren Sare Intermodal eta Logistikoaren Lurralde Zatiko Planaren aurrerapenari. Herriarekin eta oro har Debagoienarekin lotutako hiru proiektu igarri dituzte faltan.

Garraio Departamentuak prestatu du aurrerapena eta Udaletara bidali zuen. Hala, Udalak aztertu

eta hiru hutsune atzeman dizkio.

Aurrerapenak bi atal gartzten ditu: merkantzien logistikari eta garraioari dagozkion proposamenak eta bidaiarien garraioari lotutakoak jasotzen ditu.

Lehenengoan, bi hutsune ikusi ditu Udalak: bata, ez duela jasotzen Udalak eta Mankomunitateak egindako eskaria: abiadura handiko tren delata-eta, Debagoienan geltokia jartzea. Bestea, ez duela jasotzen ibarreko garraio-

arendako gune logistikorik, nahiz eta Olan aurreikusita egon.

Bigarren atalean, aurrerapenak ez du tranbia aipatzen, departamentu berak proiektuaren idazketa esleitu duen arren. Hala, hiru gaiok aurrerapenean jasotzeko alegazioak onartu zuen udalbatzak, aho batez, egubakoitzean. Aralarrek esan zuen lehen puntuaren gainean, ez dagoela ados AHTarekin, baina proiektua egitekotan logiko ikusten duela alegazioa.

LABUR

Bergarako udal webguneak helbide berria dauka: 'www.bergara.es'

Bergarako Udaleko webguneak helbide berria dauka oraingo astea ezker. Udalaren inguruko informazioa jasotzeko Interneteko helbide honetara jo dezakezue: www.bergara.es.

Minusbaliatuak, Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbu

Udaletik bidalitako oharrean aditzera eman dute aurtengo urte-tik aurrera minusbaliotasun egoera egiaztatzen dutenek -%33koa edo handiagoa- ez dutela Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga ordaindu beharko, ibilgailua haren izenean badago (Bergaran helbideratuta) eta hala eskatzen badute.

ZAIATZKO

TELEKOMUNIKAZIOAK

Telesforo Aranzadi 3 943 76 10 66

Eta gainera
dekoraziorako
opariak

ESKAINNTZA BEREZIA:

DIGITAL+

Orain:
Alta ematea

30€


Lehen:

~~90€~~



SAN MARTINEKO IKASLEAK ANOETAN

San Martin ikastetxeko ikasle talde batek Anoetara bisita egin zuen Gabonetan. Realeko arduradunekin batera instalazioak ikusi zituzten eta Jose Luis Astiazaran Realeko presidentearekin egon ziren. Ikasleek, Realaren martxarekin kezkatuta, taldearen inguruko hainbat galdera egin zioten, eta Astiazaranek, lasai egoteko, taldeak gora egingo zuela agindu zien ikasleei. Argazkian, San Martineko ikasleak Anoetako estadioan. Realaren etorkizuna ziurtatuta dago, dudarik ez. Ea laster Realarekin fitxatzeko deia jasotzen duen argazkiko norbaitek...



TXAPA IRRATIKOEN KALABAZA

Azken urteotan ohikoa denez, Gabon egunean Txapa Irratikoak kalerik kale ibili ziren kalabaza erraldoi batekin. Lehiaketa egin zuten, ea nork asmatzen zuen kalabazaren pisua. Guztira, 300 bat lagunek hartu zuten parte baina ez zuen inork asmatu (argazkikoek ere ez). Kalabazak 22,440 kilo pisatzen zuen, eta, gehien hurbildu zena Alain Gonzalez izan zenez, hark jaso zuen saria: bi lagunendako afora Etxagin, hain zuzen ere. On egin!



MARISKADAKO IRABAZLEA

Bai Euskal Herriari taldeak Gabonetan zozketatuko mariskoa Igor Oruesagastik jaso zuen. Abenduaren 31n egindako zozketan 3.209 izan zen saritutako zenbakia, eta dagoeneko mariskoaren arrastorik ez dagoela azaldu zigun Igorrek. Elosuko Elurmendi elkarteko lagunekin eta etxean, familiarekin, ederki asko jan zutela: txangurroak, abakandoak, legatza, erreboiloa, zapoa, nekorak... On egingo zieten, dudarik ez!



BERGARA KIROL ELKARTEAREN ZOZKETA

Benito Castillejo izan da Bergara Kirol Elkarteak Gabonetan antolatutako zozketako irabazlea. 29.236 izan zen saritutako zenbakia, eta Benitok Gabonetako saski ederra eskuratu zuen. Bigarren saria (bideo bat) 31.715 zenbakiarentzat izan da. Txartelaren jabea azaltzen ez bada, 13.652 izango da ordezkoko zenbakia. Argazkian, Benito Castillejo irabazlea saria jasotzen Iñaki San Jose BKEko presidentearen eskutik. Zorionak!

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09



POL-POL

Taberna

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



Idurre Lopez

OSTADAR ILE APAINDEGIKOA

Ile apaintzaile ikasketak egin zituen Eibarren, eta lau urtez Eskoriatzan lanean jardun ondoren, azken bost urteotan Ostadarren dihardu. Bi lankide ditu, Nagore eta Ainhize. Idurrek 28 urte dauzka, ezkondua dago eta Libra zeinukoa da.

Ilea, luze ala motz?

Erdi, ez luze, ez motz.

Mozteko orduan, emakumeak ala gizonak nahiago?

Biak. Hala ere, emakumezkoek *joko* handiagoa ematen dute.

Orain zer dago modan?

Mozte asimetrikoak, desgastatuak, informalak.

Zenbateraino behin aldatzen duzu orrazkera?

Sarritan aldatzen dut, orrazkera zein kolorea.

Ilerako, zein kolore atsegin?

Kolore biziak, tonu gorriak.

Pertsonaia ezagunetatik, noren orrazkera atsegin duzu?

Real Madrileko Guti futbolariarena, adibidez.

Eta nori aldatuko zenioke orrazkera?

Albako Dukesari eta Jesulini, esaterako.

Pinpirina zara?

Pixka bat, bai.

Gustuko jantzi bat? Kolore bat?

Prakak. Kolorea, beltza.

Beherapenetan egin duzu erosketarik?

Oraindik ez dut astirik izan...

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Paseatu, lagunekin buelta bat eman, afaltzera joan...

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

Flor del desierto (Waris Dirie)/*Planta 4*/Alex Ubago.

Bizitzan zeri ematen diozu lehenasuna?

Osasunari. Hori da beste guztiaren oinarria.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?

Egiazaletasuna eta lagun ona izatea.

Janari eta edari bana?

Txuleta on bat eta ardo beltza.

Zer eskatu diozu urte berriari?

Osasuna eta lana. Loterian ezertxo ere irabazi ez dugunez...

Loterian milioi bat euro irabaztekotan, zer?

Bidaia on bat egingo nuke, Hego Amerikara.

Brasilera joateko gogoz nago.

EDU MENDIBIL

KANPOTARRAKBERGARAN

AURIOL MURPHY

46 URTE / ESKOZIARRA / ORAIN DELA 23 URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Hasiara baten bi urterako etorri nintzen, eta dagoeneko bizitza erdia egin dut Bergaran”

EDU MENDIBIL

Bizitza erdia Eskozian eta beste erdia Bergaran egin du Auriol Murphyk. Dagoeneko 23 urte gin ditu gure artean. Jaiotzez Edinburgokoa da. Han Biologia ikasten ari zela, bere senarra dena ezagutu zuen. “Udako oporrak prestatzen ari ginen lagun bat eta biok: lagunak Euskal Herrira etorri nahi zuen eta nik, berriz, nahia go nuen Siziliara joan. Azkenean, Siziliara joatea erabaki genuen, eta, egun hartan bertan, arratsaldean, Ramon ezagutu nuen. Ingelesa ikasten zebilen Edinburgon; han ezagutu genuen elkar, taberna baten, lagunartean. Nork esango zidan orduan Bergaran bukatuko nuela?”

Ezagutu eta handik bi urtera ezkondu ziren, Edinburgon lehen-

“Eskoziako familiarekin seme-alabak ezin konpartitzea gogorra egiten da”

bizi eta Loiolan ondoren. Ezkondu aurretik Bergaran egonda zegoen Auriol: “Lehenbizi gurasoak etorri ziren, jai batzuetan, eta niretako moduko herria ez zela esan zidaten. Jan ondo egiten zela, baina hiri handi batetik etorrita, nekez moldatuko nintzela. Abuztuaren ezkondu ginen, eta, hasiera baten, Bergaran bi urte egin eta Eskoziara bueltatzea zen gure asmoa. Baina hemen

jarraitzen dugu. Rachael gure alaba jaiotzean, Bergaran gertatzea erabaki genuen. Eskozian lan egiteko eskaintza jaso nuen orduan, baina Ramonek lan on bat topatzea zailagoa zuen, Edinburgon industria gutxi dago-eta”.

Bergarara etorri zenean, ingelesa erakusten hasi zen Auriol. Hamar urte eman zituen UNEDen eta ondoren, 1990ean, Espolon hizkuntza akademia zabaldu zuen Debora Outsenekin batera. Gustuko lana duela diosku.

ESKOZIA GOGOAN

Ramonek eta Auriolek hiru seme-alaba izan dituzte: Barrie-John (21 urte), Rachael (18) eta Nathan (16), eta hirurak ere Eskozian jaiotakoak dira. Familia izugarri igartzen du faltan Auriolek: “Pena daukat gure seme-alabak Eskoziako familiarekin konpartitzeko aukerarik ez izateagatik. Izan ere, seme-alabak haziz doaz, eta orain gutxiagotan joaten gara Eskoziara. Aurten denok joango gara, gurasoek urrezko ezteiak eta ahizpetako batek zilarrezkoak ospatzen dituztelako. Gurasoak ere aurten etortzeko dira; asko gustatzen zaie Euskal Herria, eta gustura ibiltzen dira hemen”.

Edinburgoko urteroko dosia behar-beharrezkoa duela dio: “Hango kale nagusian, Princess Streeten, inork ezagutzen ez zaituela paseatzea ikaragarri gustatzen zait. Hiri oso ederra da”. Barrie-John euren seme nagusiak Biologia ikasten dihardu han.

Ez hangoa eta ez hemengoa, dagoeneko ez daki nongoa den: “Mutrikuko lagunek *euskozesak* deitzen digute...”. Izan ere, askotan joaten dira Mutrikuko kanpinera, atsedean hartzera, baldin eta futbol partidurik ez badago behintzat: “Rachael Oiartzungo futbol taldean ari da aurten, eta taxi lanak egitea egokitzen zaigu. Edozein plan egiteko futbol partiduen mende ibiltzen gara beti”. Oiartzuneko jarraitzailea izateaz gainera, Realekoa eta Glasgowko Celticekoa da Auriol.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA


Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

**GOIERRI
AUTOGIDARIEN ESKOLA**



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

ELKARRIZKETA

IÑAKI MANUEL/ARRATE ESKUBALOI TALDEKO ETA EUSKADIKO SELEKZIOKO JOKALARIA

"Ate aurrean ohi baino gehiagotan asmatu nuen Espainiako Txapelketan"

EDU MENDIBIL

Gazte mailako Euskadiko Selekzioarekin Espainiako Kopa Txapelketa irabazi du Iñaki Manuel (17 urte). Gabonetan Madril jokatuak txapelketan, Euskadik jokatuak bost partiduak irabazi ditu, eta Iñaki txapelketako golegile nagusia izan da, 24 golekin. Aurten, laugarren denboraldia betetzen ari da Arraten.

Txapelketa irabaztea espero zenuten?

Bai, gure helburua hori zen. Iaz mailaz jaitsi zen Euskadiko Selekzioa, eta, beraz, Kopa Txapelketan lehiatu gara, beste bederatziko selekzioekin batera. Lehen mailakoak, berriz, Espainiako Txapelketan ibili dira, eta, oker ez banago, Valentziak irabazi du.

Esan bezala, bi multzotan banatu gaituzte Kopan: guk Melilla, Errioxa, Murtzia eta Kantabriaren aurka jokatu dugu eta finalean beste multzoko irabazlea izan zen Galiziari irabazi genion, 23-21. Partidu guztiak irabazi ditugu, eta emaitza deigarriena Melillaren aurka lortu genuen, 52-11. Benito hautatzailera pozik zegoen taldeak erakutsitako jokorekin. Gainera, datorren urtean berriro onenekin batera lehiatzeko aukera izango du Euskadik, mai-



laz igo garelako. Txapelketa ondo joan da, bai.

Gainera, txapelketako golegile nagusia izan zara.

Egia esateko, esan zidatenean ez nuen sinesten. Ez dakit datu horiek zuzen egongo diren... Zenbat gol? 24 egin ditut. Gol gehien Melillari egin nizkion, 11. Finalean, berriz, uste dut hiru bat egin nituela. Baina ez naiz gol asko

*"Madrilen
jokatutako bost
partiduak irabazi
ditugu, eta mailaz
igotzea lortu dugu"*

egitekoa. Ezkertiarra naiz eta hegalean jokatzen dut. Kontua da baloi asko iritsi zitzaizkidala txapelketan, eta ohi baino gehiagotan asmatu nuela.

Zure lehen esperientzia izan da Euskadiko Selekzioarekin?

Ez. Orain dela bi urte, kadete mailako selekzioarekin ibili nintzen Espainiako Txapelketan, Torreviejan. Bigarren postuan

geratu ginen orduan.

Beste selekzioekin konparatuz, zer-nolako maila du Euskadikoak?

Beharbada Katalunia da selekzio onena, eta haren ondoren maila berdintsua duten hainbat selekzio daude: Valentzia, Andaluzia, Euskadi...

Orain, ligara buelta. Zein da Arrateren asmoa aurten?

Euskal Ligan ari gara eta momentuan hirugarren postuan gaude, Bidasoa eta Askartzaren atzetik. Galdutako bi partiduak horien aurka galdu ditugu. Hirugarren postuari eusten badiogu, Espainiako Txapelketarako *play-off*-a jokatu ahal izango dugu, eta hori da gure helburua. Iaz lortu genuen eta aurten, gutxienez, ordukoa errepikatu nahi dugu.

Datorren urtean Arraten segituko duzu?

Ikusi behar. Oraingoan, gusturabil. Laugarren urtea da aurtengoa. Datorren urtean unibertsitatean hasiko naiz eta ikasketek ere zerikusia izango dute. Baina Eibarren segitu nahi nuke, bai.

Zeintzuk dira zure gustuko jokalaria?

Egia esateko, ez dut ohorezko liga gehiegi jarraitzen, nahiz eta batzuetan Arrateren partiduak ikusi. Jokalari asko dira oso onak: Dushebaiev, Ortega...

Madurako gaztetxoen taldeak, bikain Aretxabaletan

E.M.

Madurako gaztetxoen futbol taldeek emaitza bikainak lortu zituzten Gabonetan Aretxabaletan jokatuak Andoni Zubizarreta Txapelketan. Benjamin mailako

taldeak 5-4 irabazi zion Arrasateko Joma taldeari Errege Bezeran jokatuak finalean. Alebin mailan, berriz, Madurako taldea ere finalera iritsi zen, baina galdu egin zuen Jomaren aurka Ibarra futbol zelaian, 1-5.

Benjamin mailako taldeak titulu bikoitza lortu zuen Gabonetan, Gasteizen jokatuak txapelketan ere bergararrak nagusitu ziren eta. Aurrera Vitoriak antolatutako txapelketa Madurakoek eskuratu zuten.

HARROBI LANA

Madura elkarte Bergara KEren harrobi paregabea da. Federatu gabeko gaztetxoei futboleko lehen urratsak emateko aukera eskaintzen die Madurak eta emaitzak begi bistan daude. Onesimo Man-

zano beteteranoaren zuzendaritzapean, Aitor Beitia, Carlos Gorrotxategi eta Jose Felix De Benito entrenatzaileen lana goraiapatzea da.


Zorionak entrenatzaileei zein jokalaria gaztetxoei.



Madurako benjamin mailako jokalaria Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian ateratako argazkian.



Alebin mailako Madurako taldeak finala galdu zuen Arrasateko Joma taldearen aurka, 1-5.



GOIENKARIA

Iñaki Calvo bergarra (Debabarrena) 23 urtetik azpiko mailan onena izan zen Itsasondon.

TXIRRINDULARITZA

Iñaki Calvo, Gipuzkoako ziklo-kros txapelduna 23 urtetik azpikoetan

E.M.

Iñaki Calvo Gipuzkoako ziklo-kros txapelketa irabazi zuen 23 urtetik azpiko mailan, Itsasondon, abenduaren 28an. David Seco bizkaitarra nagusitu zen eta Gipuzkoako txapela janzteko lehian Zugaitz Ayuso Hartz Orti nagusitu zitzaion. Esan bezala, 23 urtetik azpikoetan, Iñaki

Calvo izan zen onena: bergarra 9. postuan sailkatu zen, Secorengandik 9 minutu eta 53 segundo-ra. Calvo 21 segundoko aldera atera zion Iñigo Andreuri.

Gaur egun ziklo-krosean aritzen den Bergarako txirrindulari bakarra da Iñaki Calvo (19 urte), eta Iñigo Igartuaren pausoak jarraitzeko prest dagoela erakutsi du. Oraingoan, Gipuzko-

ako txapela jantzi du 23 urtetik azpiko mailan.

Euskadi ordezkatzuz, aste bukaeran Espainiako Txapelketa hartu zuen parte, Valladoliden. Hala ere, Calvo ez zuen bere maila onena eman, eta elite eta 23 urtetik azpikoetan lasterketan 27. postuan sailkatu zen. David Seco Espainiako Txapelketa bosgarren aldiz irabazi zuen.

PILOTATXAPELKETA

EMAITZAK

Benjamin C
Paul Balgañon 18 / Ander Aristi 9

Benjamin D
Daniel Diez 10 / Julen Jorge 18

Benjamin A
Jokin Etxabe 18 / Mikel Gallastegi 13

Alebin B
Igor Igartua 18 / Eneko Zabaleta 9

Alebin A
Beñat Rezusta 18 / Lander Ugarte 4


Infantil maila
Iñaki Igartua 18 / Aritz Rezusta 7

Kadete maila
Oier Aldai 7 / Aitor Osa 18

Gazte maila
Ibai Altuna 18 / Jon Larrañaga 22

Nagusiak
Edu Samaniego 22 / Joseba Herran 2

Barru txapelketan honako hauek nagusitu ziren: Iker Ruiz de Larramendi (benjamin C), Txomin Larrañaga (benjamin B), Xabi Berasategi (benjamin A), Jon Ander Roman (alebin B), Julen Eguren (alebin A), Ander Larreategi (infantil maila), Markel Aldai (kadete maila), Xabi Azurmendi (gazte maila) eta Igor Apraiz (senior maila).



Gabon sariko finalak, pilotaren herriko jaiak

Gabon sariko finalak izan ziren abenduaren 26an Udaltaldearen bitartean herriko 100 bat pilotari lehian aritu dira, eta Gabonetan erabaki zituzten maila bakoitzeko irabazleak (ezkerrean ikus dezakezue finalerako emaitzen koadroa). Pilotazale dezente hurbildu zen pilotalekura egun horretan buruz buruko partiduak ikusteko eta maila oneko hainbat neurketa izan ziren. Finalen eguna pilotaren jaiak izatea nahi izaten dute antolatzaileek, eta aurten ere helburua aise bete dute. Ohikoa denez, barru txapelketa ere izan zen. Argazkian, finalerako protagonistak eskuratutako trofeoekin. /ARGAZKIA: IÑIGO ZAITEGI

KIROLA

Herriko zein Debagoieneko kirol txartela egiteko epea zabalik Udaltalde Kirol Zerbitzuan

Udaltalde Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, kirol txartela berri-egiteko epea zabalik dago. Herriko instalazioak erabiltzeko txartel indibidualak 94,70 euro balio du (62,80 ikasle eta langabeendako). Familia txartela, berriz, 124,70 eurokoa da bi kideekin eta 132,80 eurokoa hiru edo lau kideekin.

Debagoieneko txartela eginez gero, prezioak hauek dira: 78,65 euro (18 urtetik behera), 112,90 euro (18 urtetik gora) eta familia txartelaren kasuan, 157,30 euro. Argibideak Udaltalde Kirol Zerbitzuan edo 943 77 91 67 zenbakian.

FUTBOLA

Preferente mailako taldeak Berio liderra hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak Berio liderra hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 16:00etan. Juan Antonio Larrañaga futbolari ohiak zuzendutako taldeak 36 puntu ditu eta Bergara, berriz, 6. tokian dago, 28 punturekin.

Zapatuan beste bi partidu jokatu dira Ipintzan: futbol 8-ko nesken taldeak Almenen kontra jokatu du 10:15ean, eta oho-rezko gazte mailan, Bergara eta Zarautz taldeak aurrez aurre izango dira, 18:00etan. Azkenik, senior mailako nesken taldeak Urola hartuko du domekan, 11:30ean.

ESKUBALOIA

Lau eskubalo partidu izango dira aste bukaeran Labegarrietako kiroldegian

Senior mailako mutilen taldeak Askartza hartuko du zapatuan, 17:45ean, eta ondoren, senior mailako neskek Galdakaoren aurka jokatu dute, 19:15ean. Domekan, berriz, kadete mailako mutilak Ereintza bisitari izango dute, 11:00etan, eta nesken taldeak, berriz, Leizaranen aurka neurtuko ditu indarrak, 12:30ean.

TXIRRINDULARITZA

Lizentziak berritzeko epea zabalik izango da otsailaren 1era arte

Bergara Txirrindulari Elkarteak aditzera eman duenez, urteko lizentziak (errepidekoa zein mendi bizikletakoa) berritzeko epea zabalik izango da otsailaren 1era arte. Lehenbizi 85 euro ordaindu behar dira Kutzako kontuan (2101 0070 8100 0675 2612) eta ondoren i2 edo Biciprecision Igartua dendetan aurkeztu agiria.

MENDIA

Datorren asteburuan Baqueirara joateko irteera antolatu du Pol-Pol Mendizale Taldeak

Pol-Pol Mendizale Taldeak Baqueirara eski irteera egingo du, urtarrilaren 23tik 25era. Era berean, otsailean bi irteera egingo dituzte: otsailaren 13tik 15era Luz Ardidenera eta 27tik 29ra Baqueirara. Martxoan, berriz, Formigalera joango dira, 12tik 14ra arteko aste bukaeran. Azkenik, Aste Santuan, ohiko irteera egingo dute Alpeetara, apirilaren 9tik 17ra, hain zuzen.

Argibideak Pol-Poleko bulegoan (aste barruan 19:00etatik 20:30era) edo 943 76 48 51 telefonoan jaso ditzakezue.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

16:00: K. Piperrak-Mongatxurrak. **Musakola**
17:00: Musakola-A Ze Flaxa. **Bar Bedarreta**
18:00: Pagomendi-Bar Bedarreta. **Kalaveras**
19:00: Artusamak-Kalaveras. **Pagomendi**

DOMEKAN, KANPOAN

09:30: Txipiron-Errotagain. **Agirrebeña**
10:30: Agirrebeña-Argandolas. **Cosa Nostra**
11:30: Fit Automoc.-Cosa Nostra. **Etengabe**
12:30: Etengabe-Vervener. **Fit automocion**

16:00: Torrekoa-PDS. **Teatekh**

17:00: Teatekh-Dedo Pafarru. **PDS**

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: TMT-Fac. **Belengua**
17:00: Totten Añiketan-Belengua. **Egurre**
18:00: Egurre-Bar Ganbara. **Totten**
19:00: Irubide-De Resaka. **Bar Ganbara**
20:00: Canalejas-SDTNT. **Irubide**
OHARRA: Santana taldea txapelketatik kanporatu dute.

Lau emanaldi izango dira: lehena bihar, zapatua, izango da eta horren ondoren beste hiru izango dira, otsailaren 1ean eta 15ean, hain justu ere

Organo Erromantikoaren V. Nazioarteko Zikloaren barruan, emanaldiak San Pedron

MONIKA BELASTEGI


Bergarako, Azkoitiko eta Azpeitiko udalek antolatuta dute Organo Erromantikoaren Nazioarteko V. Zikloa. Bergaran San Pedroko organoan egingo dituzte emanaldiak. Herri bakoitzak duen organo erromantikoaren doinu aparta aprobeztatu nahi izan dute.

Bergarako, Azkoitiko eta Azpeitiko udalek lankidetzan antolatutako zikloa da. Denera, hama bi emanaldi izango dira, lau herri bakoitzeko, eta hamar organo jotzailek hartuko dute parte. Haiekin batera, emanaldiotako batzuetan soprano eta tronpeta jotzaile bakarlariekin laguntza edo koroen laguntza izango dute.

Bergarari dagokionez, hama bi emanaldi horietako lau entzuteko aukera izango dugu; guztiak San Pedro elizako Stoltz-Freres organo erromantikoan, 20:00etan.

LEHEN EMANALDIA: MIGUEL BERNAL ORGANO JOTZAILE ALACANTARRA

Lehenengo emanaldia bihar, zapatua, izango da, eta Miguel Ber-



Stoltz-Freres San Pedro elizako organo erromantikoan izango dira emanaldiak.

nal organo jotzaile alacantarrak egingo du. Harekin batera, Madrilgo Julia Ruiz sopranoak jardungo du.

Miguel Bernalek Alacanten eta Donostian egin ditu piano eta organo ikasketak. Frantzian, Sui-

tzan, Italian eta Espainiako nazioarteko jaialdietan hartu du parte eta organoaren eta haren musikaren inguruan ikerketa ugari egin ditu.

Julia Ruiz sopranoak, berriz, Madrilén hasi eta Vienan jarrai-

Emanaldiko egitaraua

'Die ihr des unermeßlichen Weltfalls' ..(W.A. Mozart)
'Ein Orgelstück für ein Uhr'(W.A. Mozart)
'Aria (La Creación oratoriatik)'(J. Haydn)
'Fantasie-Idylle'(C. Frank)
'Crucifixus (Petite Messe Solennelle-tik)' (G. Rossini)
'Pie Jesu (Requiem-etik)'(G. Fauré)
'Gloria in excelsis Op. 59-8'(M. Reger)
'Aria Hear ye, Israel...'(F. Mendelssohn / Bartholdy)

tu zituen kantu ikasketak. Zarzuela ugaritan hartu du parte; besteak beste, *Pan y Toros*, *Luisa Fernanda* eta *Katiuska* zarzueletan. Horrez gainera, RNERako eta RTVERako ere egin ditu grabaketak. Era berean, Arte Dramatikoko Errege Ikastetxe Gorenarekin lankidetzan dihardu eta Plácido Domingorekin ere abestu izan du.

GAINERAKO HIRU EMANALDIK

Biharkoaz gain, beste hiru organo emanaldi egongo dira organo erromantikoaren bosgarren ziklo-

aren barruan. Hurrengo urtarilaren 24an izango da, eta emanaldi hori Jose Manuel Azkue oiartzuarrak egingo du. Hirugarren emanaldia otsailaren 7an izango da, eta Roberto Antonello organo jotzaileak egingo du. Azkeneko emanaldia otsailaren 14an izango da eta bi organo jotzailek hartuko dute parte, Oscar Candedok eta Loreto Aramendik, hain justu ere. Emanaldia lau eskutara egingo dute.

Lau emanaldiok 20:00etan izango dira, San Pedro parrokiako organoan.

Alberto Iñurrategiren 'Hire Himalaya' dokumentala eguenean, Novedadesen

M.B.

Alberto Iñurrategi mendizale aretxabaletarraren *Hire Hilamaya* dokumentala ikusteko aukera egongo da eguenean, 20:00etan, Novedades aretoan. Ikus-entzunezkoaren zuzendaria Alberto Iñurrategi da, eta haren anaia Felixi eskainita dago.

Hire Himalaya Koldo Izagirreren liburu baten izenburua da. Baina Alberto Iñurrategi zuzendutako dokumentalaren izenburua eta gidioa ere bada. Gainera, ikus-entzunezkoan barrena jasotzen den oinarritzko pentsamendua haren anaia zenari, Felix Iñurrategiri, eskainita dago.

Hire Himalaya 40 minutu inguruko dokumentala da eta mugimenduzko irudiak argazkiekin batzen ditu, zuri-beltzean, neurri handi baten. Horrekin batera soinu-banda ederra dauka eta ikusitakoari hitza jartzen diona Alberto Iñurrategi da.

Liburua zein dokumentala Banira Giri Nepaleko idazlearen poema batean daude oinarrituta; *Canto a la libertad* poemari, hain zuzen ere, eta bizitzako oinarritzko galderen gainean jiraka dabil.



Alberto Iñurrategi haren anaia zenari, Felix Iñurrategiri, eskaini dio dokumentala.

SARI UGARI JASO DITUEN FILMA

Alberto Iñurrategiren lanak hainbat sari jaso ditu nazioartean, besteak beste: lehen saria Trentoko Nazioarteko Mendi Zinemaldian, lehen saria Cerbiñiako Mendi eta Abentura Zine-

maldian, epaimahaiaren sari berezia Banffeko Zinemaldian eta Grand Premi Vila de Torello.

Iñurrategiren dokumentala ikusteko aukera eguenean egongo da, 20:00etan, Novedades aretoan.

KULTURAPILULAK

Joe Jimenez margolariak erakusketa jarri du ikusgai Nahikari tabernan, hil bukaerara arte

Joe Jimenez margolariak erakusketa jarri du Nahikari tabernan. Formatu erdiko hamar olio jarri ditu ikusgai Jimenezek. Aspal-ditik margotzen badu ere, duela gutxi ekin dio Mendaroko margolariak erakusketak egiteari.

Erakusketa osatzen duten hamar lanak azkeneko bi urteotan egindako lanaren fruitu dira. Orain arte Eibarko Topaleku aretoan erakutsi ditu lanok. Erakusketa urtarril bukaerara arte egongo da ikusgai.

Aritzeta abesbatzak Mizpirualderi eman dio zozketan banatu barik lagatako dirua

Aritzeta abesbatzak bisita egin die Gabonetan Mizpirualde egoitzako nagusiei. Abenduaren 27an izan ziren han, eta emanaldia egin zuten nagusienei Gabonak alaitzeko asmoz. Horrekin batera, pastak eta kafea eraman zituzten egoitzan dauden gizon eta emakumeendako.

Bestalde, San Martin jaietan egindako zozketan irabazlerik agertu ez zela-eta, diru hori Mizpirualde egoitzari ematea erabaki dute. Aritzeta abesbatzako kideek azaldu dutenez.

Marrazketa eta pintura ikastaroak egingo ditu Beart elkarteak otsailetik aurrera

Bergarako artisten elkarteak, Beartek, marrazketa eta pintura ikastaroak antolatu ditu. 13 urtetik aurrerako pertsonen zuzendutako daude eta batik bat, gazteak animatu nahi dituzte parte hartzerantz. Eskolak astegunetan izango dira, lau ordu guztira.

Izena emateko epea urtarilaren bukaeran amaituko da, eta ikastaroak otsailean hasiko dira. Interesatuak 635 71 32 69 telefono zenbakira dei dezakete eta harremanetarako telefono zenbakia bat laga.

E, TXO!

GUREGAIK/ AZTERKETAK

GAZTE EGUNA BIHAR, ZAPATUA, IRUÑEAN

Gazte mugimenduko hainbat taldek antolatuta, Gazte Eguna ospatuko dute bihar, hilak 17, Iruñean. Euskal Herriak, eta bereziki gazteek, sufritzen duten egoera dela eta, aldarrikapena eta jaia uztartuko dituzte. Mahai-inguruak, hitzaldiak, tailerrak... Egitarau zabala antolatu dute.

KULTURA ONDAREAREN GAINEKO IKERKETA BEKA

Doktore-tesia kultura ondarearen gainean egin nahi dutenei zuzenduta dago beka hori, eta Arabarri elkarteak ematen du. Urtarrilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak. www.arabarri.net webgunean aurkituko duzue informazio gehiago. Baita telefono zenbaki honetan ere: 945 25 26 33.

SOCRATES-COMENIUS PROGRAMAREN LAGUNTZAK

Europako hizkuntzaren baten filologiako, itzulpen-gintza eta interpretazioko edo irakasle ikasketak egiten diharduten ikasleei dago zuzenduta Socrates-Comenius beka. Europako herrialdeetan praktikak egiteko aukera ematen du. Otsailaren 1era arte dago eskaerak egiteko aukera. Informazio gehiago 945 01 83 35 telefonoan.

Ikasle askorendako azterketa garaia heldu dela eta, hainbat aholku jaso dugu

AINTZANE IRIZAR


Askok Gabonetako ajea oraindik gainean dugun arren, ikasleendako iritsi da azterketa garaia. Adituek emandako hainbat aholku jaso ditugu, ikasleendako baliagarriak izango direlakoan.

DBHko, Batxilergoko eta unibertsitateko ikasleek buru-belarri dihardute azterketak prestatzen, ikasi eta ikasi.

Ezinez, urduritasuna eta estuasuna sortzen diete ikasle askori azterketek. Hori gertatzen da, gehienbat, dena azkeneko momenturako lagatzeagatik. Adituen ustez, ikasteko teknikak mila egon daitezke, baina garrantzitsuena da egunero ikastea, egunegun eguneko egitea, eta ez lagatzea dena azkeneko egunerako.

AZTERKETEN PRESIOA

Pakita Urkaregi psikologoak azaldu digunez, "azterketei aurre egiteak alde aurretik ezagutzen ez ditugun galderei erantzun beharra dakar, eta horri aurre egin behar diogu; horrek hutsune bat sortzen du gugan, eta horren ondorioz, angustia, urduritasuna". Gainera, azterketa gainditzea edo ez gainditzea baino zerbait gehiago dago jokoan, Urkaregiren esanetan: "Zerbait pertsonala dago jokoan: gai izango ote naizen, galderei erantzuten jakingo ote dudun, nigandik espero dutena



DBH, Batxilergo eta unibertsitateko ikasleak dabilta azterketak prestatzen.

emango ote dudun... Azken baten, autoestima bera jokoan dago azterketekin".

IKASLE BAKOITZAREN JARRERA

Urduritasuna nagusi izaten den arren, ikasle bakoitzak jarrera

ezberdina hartzen du azterketak direla eta. Psikologoaren esanetan, alde batetik, perfekzioa bilatzen duten ikasleak daude; horiek oso zorrotzak dira euren buruarekin. Horregatik, asko ikasi arren, okerren pasatzen dutenak

izaten dira; askok jan ere ez dute egiten azterketa garaian, lo ere nahiko gaizki...

Badira beste ikasle batzuek euren buruarekin eta frustrazioekin tolerantetagoak direnak; horiek beste era batera ikasten dute, gaiak gustuko dituztelako, kuriositateagatik...

Azkenik, zeharo pasiboak ditugu; batzuek ez dakite zer nahi duten, beste batzuek jende nagusiaren gaitzespena erakusten dute...

Kontuan hartzeko aholku garrantzitsuena da egunegun eguneko egitea, eta gauzak patxadaz hartzea; izan ere, edozein gauza egiten da hobeto, patxadaz hartuz gero.

NORK BERE TEKNIKAK

Aholkuak ematen hasita, ikasi beharrekoa azpimarratzea edo laburpenak eta eskemak egitea gomendagarria izaten da; era horretako mila teknika edo aholku eman genitzake; hala ere, norberak jakiten du zein teknika doakion hobeto.

Teknikez gain, ikasteko ohiturei dagokien ere, hainbat kontu entzuten ditugu: hobeto dela egunegun ikasi eta gauez atsedean hartu, hobe dela ikasmahaietan ikasi eta ez, esate baterako, ohean etzanda... Hala ere, nork bere ohiturak izango ditu eta, esan dugun moduan, norberak jakiten du ondoen zelan egongo den gusturen ikasteko.

ZUHAIZTI
taberna

Orain eguneko menuak

Otsailaren 2tik aurrera, astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

ESPALOIA, 6
BERGARA
TFNOA: 943 76 59 22

ZAHARRAKBERRI

Nagusien Gela egitasmoaren barruan, historia eta zuzenbidea jorratuko dituzte erretiratuek urtarrilean eta otsailean

EDU MENDIBIL

UNED ikastetxeak eta San Joxepe elkarteak abian jarritako Nagusien Gela egitasmoarekin jarraituz, erretiratuek historia eta zuzenbideko eskolak izango dituzte urtarrilean eta otsailean.

Nagusien Gelaren egitasmoaren lehenbiziko fasean 24 lagunek hartu zuten parte, eta horiek dira atzo, eguena, bigarren faseari ekin ziotenak. Azaroan eta abenduan filosofiaren historia jorratu zuten Jose Luis Domingo irakaslearen eskutik eta, orain, otsailaren 19ra arte, historia eta zuzenbideko eskolak izango dituzte, eguenero, 17:00etatik 20:00etara, UNEDen.

Nagusien Gelaren helburua zera da: pertsona nagusien kolektiboan kulturarekiko interesa

piztea eta, bide batez, edadetuen bizi kalitatea hobetzeko urratsak ematea. 2002/03 ikasturtean jarri zuten lehenbizikoz martxan Nagusien Gela, eta UNEDeko eta San Joxepeko arduradunak oso pozik daude izandako erantzunarekin. Aurtengo ikasturtearekin bukatzeko, ekologia eta tai-chia iragarri dituzte hirugarren faserako, otsaila eta apirila bitartean, hain zuzen ere. Ekologiako ikasgaiak otsailaren 26an eta martxoaren 4an eta 11n izango dira, eta tai-chia, berriz, martxoaren 18an eta 25ean eta apirilaren 1ean. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

ESKOLARA BUELTA

Esan bezala, San Joxepeko ikasle beteranoak uste baino hobeto moldatu dira eskolara bueltan. Esaterako, filosofiaren historia-ko eskolak primeran etorri zaizkiela adierazi digute.



Aurten 24 lagunek dihardute Nagusien Gelan. Argazkian, joan zen ikasturtean aritutako ikasle talde bat.

Hemezortzi lagun ari dira oinarrizko xake ikastaroan, astelehena ezker

E.M.

Uste baino erantzun hobia izan du oinarrizko xake ikastaroak. Astelehenean hasi zen ikastaroa, eta 18 lagunek dihardute. San Joxepe elkarteak antolatzen dituen ikastaroetan ohikoa den bezala, honetan ere emakumeak dira nagusi: 14 emakume eta lau gizonezko ari dira ikastaroan. Eskolak astelehenero izango dira, 17:30etik 18:30era, erretiratuen egoitzan bertan, otsailaren 23ra arte.

ZALETASUNA PIZTU

Irakasle lanetan Edurne Zabaletak jardungo du eta bi laguntzailer izango ditu: Juanito Iturralde eta Antolin Marchena. Iturraldek berak ikastaroaren helburuaren berri eman digu: "Egoitzan lagun asko kartetan ibiltzen dira, eta xakea ez da horren ezaguna. Askok eliteko kirola dela uste



Kultur Hamabostaldian antolatutako xake txapelketak ere erantzun ona izan zuen.

dute, eta ez da horrela. Jendea pieza bakoitzaren ezaugarriak eta mugimenduak nola egin behar diren erakutsi nahi diogu, xake-

arekiko zaletasuna pizteko, besterik barik. Eta jendeak primeran erantzun du, pozik gaude lortutako ikasle kopuruarekin".



Gabonetako saskien zozketa San Joxepen

Aurreko urteotan moduan, San Joxepe elkarteko lagunek bi saski eder zozketatu zituzten Gabonetako loteriarekin batera. Abenduaren 22ko loteriarekin egindako zozketan, saria 473 zenbakiari egokitu zitzaion, eta Anton Ibarrek eskuratu zuen saskia. Bestalde, Errege eguneko loterian, 459 izan zen saritutako zenbakia, eta Begoña Ibartzabalek jaso zuen saria. Bestalde, San Joxepekoek ez zuten inolako saririk jaso Gabonetan erositako loterian. Osasunari eutsi, beraz!

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze bi kaletan daude atari hauek?

BERGARAROSPETSUAK

Kruz Gallastegi (1)

KOLDO PEREIRA

Bergaran jaio zen, 1891n. Lore-zaintza eta arbolazaintzako diplomaduna. 1910-1914 artean Nekazaritza Ingeniaritzaren pareko ikasketak egin zituen Alemaniako Hohenheim-eko Nekazaritzako Goi Eskolan, eta gero doktoretza AEBetako Heward eta Carwell Unibertsitatean. Danimarkan, Suedian eta Norvegian ere ibili zen, nekazaritzari buruzko ezagutzak sakondu eta zabaltzen, eta 1917an AEBetara joan zen. Dudan egon ondoren, Landareen Genetikaren alorra aukeratu zuen, eta aditu handienekin jardun zuen lanean: esaterako, handik urte batzuetara Nobel saria jaso zuen Thomas H. Morganekin.

Huraxe zen haren zaletasuna, eta arrakasta handia lortu zuen Espainiara lehenbiziko aldiz eraman zituen hibridoari -artoari...- buruzko teoriekin. Alor horretan espezializatu zen Connecticut-eko esperimentazio-zentroan. Han, espezialista onenak inguruan zituela, ametsak egia bihurtu ziren. 1919ko otsailean Ithacara (New York) joan, eta ikasten eta ikertzen jarraitu zuen Cornell Unibertsitatean.

Landareen Genetika jorratu zuen eta espezialista onenekin jardun zuen lanean



ARTXIBOA

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|---|---|
| <p>1.
Zein eskubaloitza taldean ari da Iñaki Manuel jokalaria bergararra?</p> <p>A/ Bidasoa.
B/ Anaitasuna.
C/ Arrate.</p> | <p>2.
Zein udalek antolatu dute Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa?</p> <p>A/ Azkoitia, Zumarraga eta Bergara.
B/ Azkoitia, Urretxu eta Bergara.
C/ Azkoitia, Azpeitia eta Bergara.</p> | <p>3.
Zenbat lagun ari dira San Joxepetik antolatutako oinarritzako xake ikastaroan?</p> <p>A/ 18.
B/ 22.
C/ 34.</p> |
|---|---|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

EDURNE ALDANArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Edurne!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: **Koldo Eleizalde** / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Fontaneda Tostaduca gailetak

700 g-ko kaxa

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARDATZA
Brikolajea

- | | |
|--------------------|-------------------------|
| Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini |
| Horma-armairuak | Era guztietako moldurak |
| Sarrailak | Apalak |
| Heldulekuak | Kaxoiak |

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefona Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



BERGARA
Erik Polanco
Urtarrilaren 23an, 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Leire Balanzategi
Abenduaren 29an, 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Alonso
Urtarrilaren 8an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jose Luis Garmendia
Abenduaren 31n, urteak.
Zorionak aitxixa!
Unai eta Izar.



BERGARA
Unai Garmendia
Abenduaren 31n, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ane Larrakoetxea
Abenduaren 27an, urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Larrañaga
Urtarrilaren 15ean, 5 urte.
Urte askotarako!
Ainhoa eta Miren.



BERGARA
Maialen Verguizas
Urtarrilaren 9an, 3 urte.
Urte askotarako!
Familiaren partez.




BERGARA
Andoni Elorza
Urtarrilaren 15ean, 5 urte.
Zorionak! Etxekoak,
berezik! Joseba eta Iñigo.



BERGARA
Mikel Mujika
Urtarrilaren 9an, 9 urte.
Urte askotarako!
Familiaren partez.



BERGARA
Amaia Macias
Urtarrilaren 11n, 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, batez ere, Jon.



BERGARA
Oier Arevalillo
Urtarrilaren 8an, 3 urte.
Urte askotarako!
Amatxi, aitaxi eta familia.



BERGARA
Ane Morillas
Urtarrilaren 15ean, 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Eider Garcia
Urtarrilaren 18an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainhoa Garai
Urtarrilaren 19an, 4 urte.
Urte askotarako!
Maitane eta etxekoak.



BERGARA
Aitzol Gutierrez
Urtarrilaren 13an, 11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia Mikel.



BERGARA
Eukene Labaka
Urtarrilaren 8an, 9 urte.
Urte askotarako!
Markel.



BERGARA
Luis Alberto Elorza
Urtarrilaren 8an, 42 urte.
Urte askotarako!
Lagunen partetik.



BERGARA
Iker Elizburu
Urtarrilaren 12an, 7 urte.
Urte askotarako! Etxekoak,
Josu anaia bereziki.



BERGARA
Ayron Ramirez
Urtarrilaren 9an, 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Irati Murgiondo
Urtarrilaren 15ean, 6 urte.
Urte askotarako!
Guraso eta anaia Julen.



BERGARA
Miren Blazquez
Urtarrilaren 10ean, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ana Fuentes
Urtarrilaren 14an, 5 urte.
Zorionak! Etxekoak,
berezik! Ander eta Julen.



BERGARA
Eloy Diez
Urtarrilaren 19an, 4 urte.
Zorionak! Osaba-izebak
eta aiton-amonak.



BERGARA
Olatz Azkarate
Urtarrilaren 17an, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Olatz Basterra
Urtarrilaren 20an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Maddi.



BERGARA
Naikari Medina
Urtarrilaren 21ean, 19 urte.
Zorionak! Etxekoak,
maitasun handiarekin.



BERGARA
Aratz Zuazo
Urtarrilaren 19an, 6 urte.
Zorionak! Gurasoak eta
Jurgi, asko, asko, asko...

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenean 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

DIETISTAK

- ALBERDI Mireia** Olaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA. 943 76 60 45 / 646 443 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

- AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekaldé 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

- IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ezk. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

- SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 16a / 185. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02



Joxe Joan Gonzalez de Txabarrirekin batera, azpiegituretako diputatu Xabier Zuriarrain ere Antzuolan izan genuen.

Proiektu ugari aurkeztu ditu Udalak jendaurrean

AINTZANE IRIZAR

Joxe Joan Gonzalez de Txabari diputatu nagusia alboan zuela, Udalak datozen urteetarako aurrez ikusten dituen hainbat proiektu aurkeztu zuen Jose Angel Zabalo alkateak eguzten arratsaldean. Tartean, baita orain arte ezagutzen ez genituen proiektuak ere.

Eguaztenean etorri zen Gipuzkoako diputatu nagusi Gonzalez de Txabari Antzuolara. Eguerdian, Udaleko ordezkariekin elkartu zen; bazkalostean, herriko enpresetako ordezkariekin, eta arratsaldeko seietan, Jose Angel Zabalo alkatearekin batera, herriko hainbat proiektu aurkeztu zituen.

Aurkeztu zituzten proiektuetako asko ezagunak ziren; beste batzuk, baina, ezustean hartu zituzten herritar askok. Proiektu horietako gehienak, Jaurlaritzaren Izartu programari esker eraman ahal izango dituzte aurrera. Gainbehera datozen udalerrriak suspertzeko laguntzak ematen ditu Jaurlaritzak, Izartu programaren bitartez. Ekonomia,

gizarte edota nekazaritza arloan aurrera egiteko laguntzak dira Jaurlaritzak ematen dituen horiek. Izartu programaren diru-laguntzen bigarren deialdia egingo du oraintxe Eusko Jaurlaritzak; hil honetan bertan aurkeztuko dute Izartu programa, Bilbon.

PROIEKTU GARRANTZITSUAK

Proiektu ugari eta garrantzitsuak aurkeztu zituen alkateak datozen urteetarako.

Guztira, zortzi proiekturen berri eman zuen Zabalo. 7.200.000 bat euroko aurrekontua dute proiektuok. Erdia Izartuk finantzatzeko duen arren, beste erdiari aurre egiteko gai ez da Udala. Horregatik, proiektu horietako bat da Udalak etxebizitzak egin

eta saltzea, gainerako proiektu guztiak aurrera eraman ahal izateko.

Gaur egungo frontoia bota eta hantxe egingo dituzte etxebizitzok. Ez gara, baina, frontoirik gabe geratuko herrian; izan ere, bigarren proiektu bat da Zupide eta Iriarte artean kiroldegia egitea. Hantxe egingo dute frontoia ere.

Egiten dituzten etxebizitzetan, beheko solairu guztia (1.000 metro koadro) Udalaren esku geratuko da; hantxe egingo dituzte anbulatorioa, erretiratuen egoitza, eguneko zentroa, etxebizitza tutelatua eta gimnasioa.

Gizarte Etxea, berriz, bi solairutakoa izango da. Gaztetxea, zinema, liburutegia eta abar egongo dira han. Gaietan, beste hiru solairutan, Udalak babestutako hamabost etxebizitza egingo ditu.

Horiek dira proiektu berrienak. Gainerakoak, berriz, honakoak: bi bidegorri egitea, Uzarragako zubitik Elayra errepi-dea egitea, Haurreskola Partzuergoan sartzeari, baserrietara edateko ura eramatea eta alde zaharra peatonalizatzea.

Frontoia bota eta etxebizitzak egiteko asmoa dute; baita kiroldegia ere, frontoi eta guzti

ELKARTASUNA

Sahararako janaria batzen hasi dira

AINTZANE IRIZAR

Saharara bidaltzeko janaria eta dirua batzeko kanpaina abian jarri du Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkarteak; Anelkarrek, Udalak eta Herri Ikastetxeak bat egin dute kanpaina horrekin, eta hasi dira dagoneko janaria eta dirua batzen.

Martitzenean jarri zituzten janaria batzeko kaxak, eta hilaren 21era arte egongo dira. Udaltxean, Eroskin, Juanitaren denda eta Herri Ikastetxean jasoko dute janaria. Oinarrizko elika-

gaiak jasoko dituzte: arroza, atuna, lekaleak, pasta, azukrea eta olioak. Jasotako dirua, berriz, janaria bidaltzeko erabiliko dute. Anelkarren kontu korranteetan sartu dezakezue dirua.

KONGORA, 12.000 EURO

Bestalde, Anelkarrek jakinarazi digenez, 9.810 euro batu zituztela azaroan eta abenduan Kongorako. Udalak 6.000 euro eman zituen, eta beste 3.810 euro batu zituzten herritarren artean. Aurretik batuta zuten dirua gehituta, 12.000 bat euro bidaliko dute Kongora, eskolak egiteko eta umei eskolarako materiala erosteko.

LABUR

Gerra zibilaren gaineko hainbat ekitaldi izango ditugu, eguenean, hilak 22, hasita

Eguenean, hilak 22, hitzaldi batekin hasiko dute gerra zibilaren gaineko ekitaldi sorta. 19:00etan izango da hitzaldia Orlanaren. Juan-txo Agirre Aranzadi zientzia elkarteak idazkaria eta Eusko Ikaskuntzako arkeologia saileko lehendakariak egingo du hitzaldia. Bestalde, hilaren 24an eta 25ean eta hurrengo asteburuan, gerraren gaineko erakusketa jarriko dute Orlanaren. Hilaren 25ean, azkenik, Joseba Tapiaren kontzertua izango dugu, 19:00etan, eskolako aretoan. *Agur, Intxorta maite* diskoa aurkeztuko du.

KZGunea egubakoitz goizetan bakarrik zabalduko dute hemendik aurrera

Hemendik aurrera, egubakoitz goizetan bakarrik zabalduko dute Orlan etxean dagoen KZGunea. 09:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere, egongo da zabalik. Irakasle bat egongo da hantxe, erabiltzaileei beharrezko laguntza eta azalpenak emateko. Hortaz, ez da gehiago Internetaren gaineko ikastarorik egongo Antzuolako KZGunean. Gogoratu ezazue, Internet eta posta elektronikoa erabiltzeko doaneko zerbitzua dela KZGunea.

Immersoren bainuetxe programan parte hartzeko aukera dute erretiratuek

Immersoren bainuetxe programan izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko. Erretiratuen eta pentsiodunen programa horri esker, bainuetxetan 12 eguneko egonaldia egiteko aukera izango dute. Abuztua baino lehen joan nahi dutenek, urtarrilaren 23ra arte dute izena emateko aukera. Horretarako, Udaltxeko Gizarte Langilearengana jo dezakezue.

KIROLA

Eruption taldeak irabazi zuen areto futboleko 24 orduen txapelketa

AINTZANE IRIZAR

Hogeita lau orduz futbol areto bihurtu zuten herriko frontoia. Hamabi taldek jardun zuten lehian, zapatu iluntzean hasi eta domeka iluntzera arte. Jo Ta Ke eta Eruption taldeak iritsi ziren finalera, eta Eruptionek eraman zuen, azkenean, txapela.

Zapatu iluntzean hasi eta domeka iluntzean amaitu zen Antzuolako Gazte Asanbladak antolatutako areto futboleko 24 orduen txapelketa. Guztira hamabi taldek jardun zuten elkarren aurka, eta Eruption taldeak jantzi zuen txapela. Domekan, 19:00etan hasi zen finala Eruption eta Jo Ta Ke taldeen artean. Azkenean, esan dugun moduan, gazteenek irabazi zuten, 7-4.

Ez zen aparteko partidua izan finalekoa; izan ere, bi taldeetako kideak nekatuta zeuden, partidu asko jokatu behar izan zituztela-ko finalera iristeko.

Hona hemen Eruption taldea osatu zuten futbol jokalariek: Iñaki Agirre, Iñaki Arbulu, Luis



Eruption taldeak txapelketa ona egin zuen.

OLAIA MONDRAGON

Franco, Ekaitz Olalde, Ibon Urtzelai, Iker Cabrera, Aitor Godoy, Imanol Lizarralde eta Mikel Idiakez. Horiexek dituzue argazkian azaltzen direnak. Paco Cabrera

bakarrrik falta da partiduaren ondoren ateratako argazkian.

Aipatzekoa da, bestalde, lehen bi postuetan sailkatutako taldeez gain, beste bi sari ere eman

zituztela: alde batetik, golegile nagusiaren saria Juan Luis Etxaniz bergararrak irabazi zuen; eta gol gutxien jasotako atezainarena, berriz, Alberto Gullonek.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Oraingo asteburuan ez da partidurik jokatu Estalan. Erregionalek eta neskek, kanpoan jokatu dute; erregionalek Urnietan, eta neskek, berriz, Zumaian. Kadeteek eta gazteek, berriz, hilaren 25era arte ez dute hasiko bigarren fasea.

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 3 Behobia 0 (2. erreg.)
Arrasate 2 Antzuola 2 (Gazteak)
Arrasate 6 Antzuola 4 (Kadeteak)
Urki 2 Antzuola 0 (Neskek)

LABUR

Traste zaharrak astero batuko dituzte, otsailetik

Otsailean hasita, astero batuko ditu Debagoieneko Mankomunitateak etxeko traste zaharrak. Eguenero pasatuko dira, koltxoiak, altzariak eta bestelako trasteak jasotzera. Mankomunitateko arduradunek azaldu digutenez, 20:00ak eta 22:00ak bitartean atera behar dira trasteak.

Independentzia Eguna martxoan ospatuko dute

Independentzia Eguna urtarrilean ospatu izan dute, baina aurten, antolatzaileek erabaki dute martxora arte atzeratzea. Horren arrazoiak dira, batetik, Gabon jaiak pasatu berri direla eta jendea nekatuta egoten dela garai honetan; eta, bestetik, sekulako hotza egiten duela frontoian urtarrilean. Aipatu beharra dago, bestalde, 375 urte bete zirela abenduaren 12an Antzuolak independentzia lortu zuela eta Bergararik banatu zela.



Barkero omendu zuten abenduan

Orain dela lau urte auto istripuan hil zenetik hona, urtero egiten diote Xabier Barkeroi omenalditxo Antzuola Kirol Elkartekoek. AKEko futbol jokalaria zen Barkero.

Horrela, ordutik hona, futbol torneoa jokatu ohi dute urtero, Xabierren omenez; aurten, baina, ez zuten torneoirik antolatu. Antzuola Kirol Elkarteko futbol jokalarien aurka jokatu zuten partidua Estalako futbol zelaian, abenduaren 28an. Beteranoek irabazi zuten, 2-1./A.I.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004ko urtarrilaren 16a / 169. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Beteranoen txapelketako lau finalistak: Juan Mari Arantzeta, Alex Arantzabal, Migel Arantzeta eta Alberto Telleria.

Telleria eta Arantzabal lau t'erdian txapeladun

IRATI AGIRREAZALDEGI

Abenduaren 31n jokatu zen herriko pilotalekuan Beteranoen Pilota Txapelketako finaleko partidua, eta bertan, Alex Arantzabal eta Alberto Telleria izan ziren irabazle. Egun berean gaztetxoaren Gabonetako torneoko finalak ere izan ziren jokoa.

Urtea amaitzearekin batera beteranoen lau t'erdiko pilota txapelketa ere bukaerara iritsi zen. Abenduaren 31n jokatu zen, hain zuzen ere, finaleko partidua, eta Alberto Telleriak eta Alex Arantzabalek osatutako bikoteak irabazi zuen torneo.

Urduri antzean kantxaratu ziren Alberto Telleria eta Alex Arantzabal eta baita euren aurkari Arantzabarrak ere. Hala ere, nor baino nor gehiago jardun zuten pilotan, eta markagailuan 22ra heltzen lehenak Alberto eta Alex izan ziren. Arantzabarrak ere fin aritu ziren, eta esperientzia badutela erakutsiz 15 tanto egin zituzten.

Txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabakitze

partidua ere izan zen jokoa; bertan, Txapel eta Koldo izan ziren irabazle, Txispiri eta Zenitagoiari 22-12ko irabazita.

Markagailuan batzuk gailendu baziren ere, benetan maila gorenera iritsi zena frontoiko giroa izan zen. Finalean ez ezik, txapelketak iraun duen bitartean ere herritar asko izan dira pilotalekuan partiduak ikusten, eta horrek bizitasun berezia eman dio herriari.

Txapelketaren arrakasta horretan zeresan handia izan du antolatzaileen lanak. Izan ere, partiduak garaiz iragarri dituzte, parte-hartzaileekin arreta handia izan dute, eta epaileen lana eta pilotalekua partiduetarako egoki izatea ere aipatzeko modukoak dira.

GAZTETXOEN TORNEOA

Beteranoen partiduen aurretik eskola umeen Gabonetako torneoko saioak izan ziren. Jadanik ohiko bihurtu den txapelketa honek badiu bost irabazle berri: benjamin aurrekoetan, Josu Mañarikuak 18-10 irabazi zion Jon Ugartebururi; benjaminetan, lehia estuaren ostean, Maitane

Mañarikuak Aitor Gorostizari irabazi zion; nesketan, Nagore Moralesek 18-9 irabazi zion Eider Ormaetxeari; alebinetan, Eneko Oiangurenak 18-10 irabazi zion Iñaki Olaortuari; eta, azkenik, infantiletan, Zenitagoiak 18-12 irabazi zion Agirregomezkortari.

Gabon zahar eguneko txapelketetako sariak Aitor Elkoro herriko pilotari ezagunak banatu zituen.

BOLOAK

Pilota torneoetako finalak ez ezik, bolo txapelketako azken tiraldia ere jokatu zen Gabonetan. abenduaren 26an, hain zuzen ere.

Behin torneo amaituta, Bergarako Felix Aizpiri sailkatu zen lehenengo tokian, zazpi txirlo botata; bigarren Oñatiko Arlindo Armeida izan zen, sei txirlorekin; eta hirugarren Bittor Rodriguez eibartarra, hirurekin. Nesketan, berriz, Olatz Jimenez markinarra nagusitu zen.

Txapelketan parte-hartzaile kopurua altua izan da, barikuro hogeitik gora bolari izan dira Elgetako kiroldegiko bolatokia. Gainera, jokoa maila ona erakutsi dute.

KAFE ANTZOKIA

Espaloiko lanak jaietarako amaituta

Aspaldikoa da Espaloia Kafe Antzokiaren proiektua. Eraikina bera eginda dago, eta zenbait ekitaldi ere egin izan dira; hala ere, oraindik egokitze lanak falta dira.

Joan zen urtarrilaren 7an hasi zituzten Espaloia egokitze lanak, eta egun hauetan, igeltse-roek eta beste hainbat beharrik dihardute bertan.

Lehenengo, taberna, sukaldaria eta jangela egokituko dituzte, eta horretarako horma batzuk bota dituzte dagoeneko. Ondoren, eszenatokia prestatzeko lanetan hasiko dira. Hau da, soina, argiztapena eta antzokiko oihalak mugitzeko makineria ipini-

ko dituzte behar den moduan. Akustika hobetzeko zenbait lan egingo dituzte, eta horretarako aurrez ikerketa bat egin dute.

Eszenatokia eta taberna egokitzeaz gain, ekitaldiak daudenerako jendea egoteko zenbait gune ere prestatuko dituzte.


Ekipamendu proiektuak 342.272 euroko kostua izango du, eta lanak datorren uztailetarako, jaietarako, amaitzea espero dute.

ADJUDIKAZIOA

Bestalde, jadanik ezarri dituzte Kafe Antzokia ustiatzeko baldintzak, eta aurki buletinaz azalduko dira.



Hilaren 7an hasi zituzten Espaloia aretoa egokitze lanak.



- Egunko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

PANA DE ROKUA
TATETXEAL

ELKARRIZKETA

GORKA ARIZMENDIARRIETA/MATXURA TALDEKO ABESLARIA ETA GITARRISTA

“Hurrengo emanaldia Elgetan egingo dugu, eta baliteke hil amaieran izatea”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Soraluzeko bi lagunek eta elgetar batek, Gorka Arizmendiarrietak, osatzen dute Matxura taldea. Estreinako kontzertua urte honen hasieran eman zuten. Musikazale eta orain musikari den honekin egin dugu berba.

Noiztik diharduzu musikan?

Orain dela 6 urte-edo hasi nintzen, Elgetan, bi lagunekin, gitarra jotzen gaztetxean. Gero, duela urtebete, gitarra etxean jotzeaz aspertuta, Soraluzeko Loiolarekin elkartu nintzen. Hark bateria jotzen du, eta lokal batean entseatzen hasi ginen. Ondoren, baxu jotzaile baten beharra ikusi eta Soraluzeko beste mutil batek, Jonek, gurekin bat eginda taldea osatu genuen. Lau edo bost hilabetez kantua prestatu, eta orain dela gutxi eman dugu lehen kontzertua.

Zer moduzkoa izan zen estreinako kontzertua?


Oso urduri atera ginen, baina era berean baguen gure burua taula gainean probatzeko gogoia. Jende asko izan zen kontzertuan, baita Elgetako jendea ere, eta horrek ilusioa egin zidan. Errepertorioa txikia izan arren, entzuleei gustatu zitzaizela uste dugu, eta gu ere gustura atera ginen kontzertutik.

Zien musika egiten duzue?

Hirurok gara musikazaleak, baina nork bere gustuak ditu. Hala ere, egiten dugun musika pop estilokoa da. Beste gitarra bat sartuz gero, agian rock ukitu bat emango genioke taldeari, eta hori da gure asmoa.

Abestiak nork egin ditu?

Plazentziara joan nintzenarako bederatzi kantua eraman nituen prestatuta, eta horiek jotzen ditugu. Gitarra akustikoarekin prestatu dut musika; letrak, berriz, batzuk nireak dira, anaiaren laguntza ere izan dut, eta beste batzuk poeta ezagun zenbaiten olerkiak dira.



“Eman genuen lehen kontzertuan Elgetako jendea ikusteak ilusio handia egin zidan”

Nahiko musika mugimendu dago Elgetan?

Bada gitarra jotzen duen jendea, baita talderen bat ere, baina ez nire estilokoa; eta horregatik jotzen kanpora; bestela herrian segituko nuke. Bestalde, kontzertuak nahiko jaitsi dira. Hala

“Beste gitarra bat sartuz gero, agian rock estilo handiagoa emango genioke taldeari”

ere, Elgetak ematen ditu aukerak, eta aprobetxatu egin behar dira. Noizko kontzertua herrian?

Duda barik hurrengo emanaldia Elgetan izango da. Oraindik ez dakigu noiz, baina baliteke hilabete amaieran Asier Serranekin jotzea gaztetxean.

HIRIGINTZA

Txaletak eta etxe adosatua Uriburun

I.A.

Uriburun etxebizitzak eraikitzeke zatikako plana prestatzeko eskatuko dio Udalak Toledo taldeari, azken Gobernu batzordeko bilera hartutako erabakiaren arabera. Uriburun inguruan, besteak beste, txaletak eta etxe adosatua egitea da asmoa.

Hainbat etxebizitza eraiki dituzte azkenaldian Elgetan, eta beste zenbait gehiago eraikitzeke bidean daude.

Torrealdean lehen etxebizitza blokerako zimenduak ipintzen diharduten bitartean, Uriburun etxebizitzak egiteko behin-behineko plana prestatu dezaten eskatzea adostu dute Udaleko Gobernu batzordean.

Toledo taldeari emango diote Uribururako plana gertatzeko ardura. Lan horren truke 20.882,23 euro jasoko ditu, eta proiektuak bi hilabeteren buruan egon behar du amaituta.

TXALETAK ETA ETXE ADOSATUA

Arau subsidiarioen arabera, gutzira 66 etxebizitza eraikiko dituzte Uriburun inguruan. Horietatik 48 libreak izango dira, txaletak batzuk eta etxebizitza adosatua besteak. Bakoitzeko zenbat egingo diren Toledo taldeak prestatuko duen planean zehaztuko da. Gainontzeko 18 etxebizitzak, berriz, babes ofizialekoak izango dira.

Oraindik data zehatza jakinarazi ez badute ere, eraikuntza lanei hasi berri den 2004 urtean ekingo dietela espero da.

LABUR

Mendi museoa Elgetan egiteko asmoa bideragarria den ikertuko dute

Elgetan Mendi museoa egiteko asmoa aspaldikoa da, eta proiektua ere prestatu zuten. Orain, museoa Elgetan egiteko asmoa bideragarria den ikertzeko ardura eman dio Udalak Arregi aholkularitza etxeari. Besteak beste, dirulaguntzak jasotzeko aukerarik dagoen aztertuko dute eta horretarako urtebeteko epea izango du.

Sei musika talderen kontzertua eta garagardoa doan bihar, zapatua, gaztetxean

Gaur, barikua, kontzertua izango da gaztetxean, arratsaldeko 18:00etan hasita. Hell Beer Boys, Deskontrol, Kalekumeak, Never Surrender, Jony Gerriwelt eta Ostiada Oi talde elgetarrak jardungo dute. Hiru euroko sarrera ordainduta kontzertua entzuteaz gain, nahi beste garagardo edan ahal izango dute bertaratutakoek. Izan ere, gaztetxeok 200 litro garagardo doan banatuko dituzte.

Goibeko elkarteko loterian jokaturako dirua kobratzeko aukera izango da gaurtik

Goibeko elkarteko loteria erosi zutenek jokaturako dirua bueltan jasotzeko aukera izango dute. Gabonetako Loteriako sari nagusia bezalaxe, Goibekokoa ere 3 zenbakian amaitu da. Dirua kobratzeko, barikua honetan hasi eta otsailaren 14ra bitartean barikua iluntzeetan (18:15-19:45) eta zapatu eguerdietan (12:15-13:30) joan behar da Goibekok kultura etxean duen lokalera.

BOLATOKI

Eguneko menua
Asteburuan menu bereziak
Plater Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak
Karta eta babarrun-jana enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia
- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Neska-mutilak
Asentzio
egunean

Aspaldikoa da Asentzio eguna ospatzeko ohitura Elgetan. Garai batean, familia asko joaten zen ermita inguruko zelaira, lapiko handiak eta jakiak hartuta otordua gertatu eta eguna lagun eta jai giroan pasatzera. Taberna ipintzen zuten bertan, eta dantzarako aukerarik ez zen falta izaten. Orain, berriz, herri bazkaria egiten dute putzuaren aldamenean, eta dantzariak ere izaten dira, baina ohiturak zertxobait aldatu dituzte; besteak beste, egun horretan kontzertua herrian izaten da. Asentzio eguneko tradizioak, hala ere, bizirik dirau, eta maiatzean berriro izango dute hitzordua elgetarrek.

Egun horretan ateratakoa da argazki hau, duela 30 urte inguru. Elgetako hainbat neska-mutil azaltzen dira bertan, eta baita jaiaren usainean Asentziara gerturatutako beste hainbat kanpotar ere; besteak beste, soraluzetar batzuk eta Bergarako hainbat lagun.

Hona hemen erretratuan azaltzen diren neska-mutilen izenak:

Atzean, zutik: Juan Luis Arantzeta.

Beheko ilaran, ezkerretik hasita: Mari Tere Olabarria, Ane Miren Alberdi, Nekane Elgoro, Mariaje (soraluzetarra), Eloi Irazabal, Maite Larrañaga, Jesusa Izagirre, Mariasun Gorosabel, Kontxi Ibarluzea eta Idoia Arantzabal.

Hurrengo ilarako ezkerretik hiru neskek: Maria Jesus Arantzabal, Edurne Sarasketa eta Maria Angeles Elgoro.



Azpian, Maite Elgoro, Jose Mari Elgezua, Iñaki Elgoro, Teresa Elortza, Mari-bi Angoitia, Bego Perez de Herdia, Merte Elexalde eta Ana Mari Larreategi.

Beheko aldean, Marisabel Olabarria, Lurdes Olabarria (erdi etzanda), Pello Oianguren, Mari Karmen Arantzabal, Maria Eugenia Irazabal, Maria Jesus Irazabal, Edurne Alberdi (umea magalean duena), Joseba Elgoro eta Belen Roio.

Argazkia: Maite Larrañaga

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

OREKA

PSIKOLOGIA

FAMILIAKO, BAKARKAKO
ETA BIKOTEKO TERAPIA.

- Harremanetarako zailtasunak: bikotean, familian eta taldean.
- Portaera arazoak
- Eskola-porrota
- Antzietate, depresio eta elikadura arazoak.

Miriam Mujika Tel. 676 617 055
Ainhoa Basurko Tel. 615 703 725
AURREERA ERAIKINA
Urtzaille 1 solairua, EIBAR

BEHEKO
TABERNAMenestra
eta untxia dira
gure berezitasunakANGIOZAR
Tf.: 943 76 55 74Mujika
gozotegiaBizkotxoak
Erreilenoak
TostoiakArtekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
TxabierroakMatxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53

ARRI

Industri
horniduraZubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

CAMACHO

Drogeria
UsaindegiaBidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35GURIA
TabernaBidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



Bizi-luz
BIZIAREN
PRODUKTU NATURALA

Gure Zerbitzuak:
Mireia Alberdi
dietista eta nutrizionista

- Gorputzeko koipe portzentajearen neurketa eta pisuaren kontrola.
- Banakako tratamendua
- Jarraipen pertsonalizatua

Jesus Huarte
mediku naturista
Elkargokide zkia.: 3.840

Diagnostikoa:
• Iridologia (Irisaren ikerketa)
• Laserpuntura

Kruz Gallastegi 7 Tel. 943 76 46 01

2004KO URTARRILAREN 8KO ZOZKETA

1.000 euroko sari bat
eta **500** euroko lau sari



Aintzane Iñurrieta
1.000 euroko saria



Ane Agirreolea
500 euroko saria



Carmen Sampietro
500 euroko saria



Anjel Gambra
500 euroko saria



Itziar Ibarzabal
500 euroko saria



Zorionak!

MULTIOPTICAS



Ondo ikusteko behar ditudalako

bonardi armazoa
35€



Nire lanerako oso garrantzitsuak direlako

bonardi armazoa
35€



Aldatzea gustatzen zaidalako

bonardi armazoa
35€

R.D.S. N° 164/99 I.L.G.

LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebárrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko, 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak

